48 03
ADANEN HIRU PINUAK

Errialtadua Nagusia izeneko mendiak, Bizkaiko Galdako udalerrian, 35 hektareako zabalera dauka eta Euskal Herrian pinu radiata mota landatu zen lehenengo mendia izan zen, Mario Adán Yarza jaunak egindako lanari esker, alegia; Euskal Herrian espezie hau sartu zuena helburu ekonomikoekin.

Intsinis pinua, Monterreyko pinua, Kaliforniako pinua eta zientifikoki Pinus radiata izenarekin ezagutzen den pinua Estatu Batuetako Hego mendebaldetik dator eta bere berezko ezaugarria nahiko altua dela (20-30 m altuera inguru) eta oso azkar hazten dela da, bere enborrak metro bateko diametroak lor baitezake 30 urtetan inguru. Klima epeletan edo beroetan hobeto hazten da, ez baititu ez tenperatura baxuak ezta jelatuak ere jasaten. Horrez gain, nolabaiteko hezetasuna behar du, nahiz eta lehorte laburrak jasateko gai izan.

Berez, Carlos Adán de Yarza (1812 – 1863) izan zen intsinis pinua Euskal Herrian sartu zuena, espezie honen hainbat ale Zubietako jauregiaren lorategian landatu zituenean, Ispasterren (Bizkaia); baina Mario semea izango da, aitak ekin egindako esperimentuaren emaitzak ikustean, Bizkaiko mendietan lehenengo landaketa masiboak egitera ausartu zena.

Mario Adán de Yarza jaunak (1846-1920) zuzenbidea ikasi zuen, baina ez zituen ikasketak amaitu, agronomiak gehiago erakartzen baitzuen. Hori zela eta, hainbat bidaia egin zituen, basoetako birpopulatzeari arreta berezia eskainiz.



Mario Adán de Yarza (1846-1920).



Babestutako hiru pinuetako bat. Iturria: Mario Michel, 2006 (ukituta).

Euskal Herrira itzultzean, Bilbo hiriko defentsarako laguntzaileen batailoian sartu zen, karlistek 1874. urtean ezarritako setioaren aurka. Horrez gain, Udalaren zinegotzi gisa ere jardun zuen, eta Hiriaren kapitulazioaren aurka gogor egin zuen, azken karlistadan.

1877. urtean, Bizkaiko Diputatu Nagusi izendatu zuten, eta 1876ko Legeari uko egin zion. Azken horrekin, apirilaren 26ko Batzarrean, foruei amaiera eman zitzaien, Quesada jeneralak deuseztatuta. Politika hartzen ari zen bidea ikusita, nekazaritzara eta silbikulturara dedikatu zen.

Lehen aipatu ditugun 1898an landatutako lehenengo intsinis pinuak moztu eta birlandatu ziren bigarren txanda batean 1955ean. Hirugarren txanda 2002. urtean izan zen.

Landatutako lehenengo pinu horiek historikotzat jo daitezke, Euskal Herrian intsinis pinua landatzen zen lehenengo aldia zelako, baina bitxiena da pinu partzela horren barruan errespetatu direla, Mario jaunaren ondorengoen esanetan, 1898ko lehenengo landaketaren hiru pinu, horregatik, arreta berezia merezi dute.

Haien gorpuzkera dela eta, ortoargazkietan argi atzeman daitezke, birlandatutako pinu berrien artean nabarmentzen direlako. Baita 2002ko ortoargazkian ere, baso-mozketa batekin bat eginez, argi eta garbi ikusten dira.

XIX. mende aldera, euskal basoen egoera ez zen oso ona, ontziak egiteko eta burdinoletarako ikatza fabrikatzeko erabiltzen zen egurra gehiegi ustiatzen zelako. Oro har, kimatze teknika erabiltzen zen. Hura adarrak moztean zetzan, baina enborra kendu gabe, adarrak hazten jarraitzeko helburuarekin.

Intsinis pinuaren landaketak orokortzeari esker partzela oso bat birpopulatzen zen eta 30 edo 40 urte inguru igarotzean, pinu guztiak ipurditik mozten ziren, ondoren partzela birlandatuz. Hau oso interesgarria izan zen baserrietarako, pinu horiek landatu zuen belaunaldi berak esfortzuaren fruitua bildu zezakeelako, haritzen edo pagoen silbikulturak, berriz, 100 urte baino gehiago behar zituen eta ekonomia itzulkina beti ondorengo belaunaldietarako zen.

XX. mende erdialdean, baserriko jarduerak, nekazaritza ustiapen gisa, pixkanaka behera egiten duenean, lurraldeen zati handia intsinis pinua landatzeko erabili zen. Hura “urre berdetzat” jo zen, errentagarritasun handia zuelako.

Intsinis pinuari eskainitako azalera gero eta handiagoa izateak hainbat kolektiboren haserrera piztu zuen 1970eko hamarkadan eta, ondorioz, horiek mota honetako ustiapen honen aurka mobilizatzen hasi ziren. Hala ere, hainbat azterketa teknikoek adierazi zuten ingurumenari eragiten zitzaion kaltea oso txikia zela eta ondorio ekonomikoa, berriz, oso handia.

Gaur egun, pinu honen egurrari erabilera asko ematen zaizkio eta bere kalitatea gero eta hobea da forestalisten elkarteek burututako kontzientziazioari esker.

Hala ere, pinu gehiegi sortzeak prezioak nabarmen jaitsi ditu, ondorioz, errentagarritasuna jaitsi da eta bestalde, kalitate eskakizunek zuhaitza gehiago zaintzea eskatzen dute, oraindik ere irabazi gutxiago eta lan gehiago eraginez, gero eta pertsona gutxiago lehen sektorean lan egiteko prest dauden une batean.


Gehiago jakiteko: El pino radiata en la Historia Forestal Vasca. Análisis de un proceso de forestalismo intensivo / Mario Michel. - Donostia : Aranzadi Zientzi Elkartea, 2006.




Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 512116 // Y: 4780907 // Z: 239 m. Bere itzalak bere altuera handia nabarmentzen du.



Ortoargazkia 2002. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Isolatutako hiru pinuak landatu baino lehen.



Ortoargazkia 1956/57. Amerikar hegaldia, B bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. 2. txandan zuten itxura, 1956an.



Ortoargazkia 1945/46, amerikar hegaldia, A bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi; Geografia Erakunde Nazionala.